

EMAKUMEA IRATZE ARTEAN, GIZONARENAK OMEN DIREN LANETAN

Iñaki Sanz-Azkue

Kurriloak hegan Afrikarako bidean. Paisaia gorrituak mendi magaletan. Amaitu dira sega soinuak eta gurdien mugimendu zaratatsuak. Iratzea gorritu den ere ez dugu jada begiratzen. Ikasturte berriak, lanerako bueltak eta errutinaren hasierak betetzen ditu gure buruak. Koronabirusa ezagutzen dugu. Garoa zer den jakiten nahiko lan.

Suge txiki bat atera da udazkeneko hego haizearen babesean. Mokozabalek kurriloen bide bera hartu dute beherantz. XX. mende hasierako Euskal Herrian, koronabirusa zer den ez da jakin behar. Lehentasunak daude: iraila da, iratzea mozteko garaia. Esku fin eta azkar batzuek segari heldu diote. Bizi eta indartsu ari dira garoa ebakitzen. Emakumea iratze artean? Bai, emakumea isilpeko lanean.



Kurriloak Afrikara bidean bezala, Hernaniko biztanleak ere inguruko muinoetara begira ariko ziren XX. mende hasiera hartan. Udaren hondarrean, mendia berdetik gorri-
ra pasatzen hasten den uneak mar-
katzen baitzuen udazkenaren erritmoa. Eta Gracia-
na Mendizabalek inoiz baino urduriago begiratuko
zion inguruko paisaiari. Izan ere, Gracianak iratzea
moztu nahi zuen, baina ezin zuen.

Jakin, jakingo zuen udaren azkena gainean zuela, eta berandu baino lehen mugitzen hasi beharko zuela. Ataka zailean zegoen, baina bizitzari aurre egin behar. Herriko udalbatzari baimena eskatu beste erremediorik ez zuen; eta hala egin zuen, Hernaniko Udal Artxiboko dokumentu zaharrak dioen moduan, «besteren eskutik sinatua». Izan ere, Gracianak ez zekien idazten, baina ederki asko zekien iratzea moztu ezean, gorriak ikusiko zituela urte hartan:

«Urteak dira nire senarrak Epelerreka mendian dagoen iratzea mozteko zazpigarren lotea eskuratu zuela, baina azken urtean, lursail horri dagokion zerga ordaintzeko papera ez zitzaion bidali, eta aurt-
en ez zaio araldira joateko deialdia egin. Izan ere,

Argazkian, araldia
Urnietan. Iñistorra
biltzen hasterako bideak
auzolanean txukuntzea
zen araldia.

Pili LASA | MANUEL
LARRAMENDI KULTUR
BAZKUNAK UTZIA

nire senarra eroetxean dago, baina be-
re faltan, haren emaztea naizen alde-
tik, iratze lotea erabiltzeko eskubidea
dudala uste dut. Hori dela eta, dago-
kion zerga ordainduz, Udalari eska-
tzen diot iratzea mozteko lursaila era-
biltzeko baimena eman diezadala».

Idatziak berak egoeraren gordinta-
suna erakusten du. Iratzea mozteko
baimena eskatzea gauza bat baita, bai-
na iratzea ebaki, gurdian etxera era-
man, meta egin, eta udazkeneko base-
rriko lan guztiak egitea beste bat. Gracianak udal batzordearen baimena
ez ezik, laguntza ere beharko zuen ho-
rri denari aurre egiteko. Kurriloak
Afrikara bidean bezala, garai hartako
udazkenetan talde lana helmugara
iristeko ezinbesteko baldintza bai-
tzen.

UDAZKENARI BELDURRIK HANDIENA

Dokumentu zaharrek, baina, misterio-
rako lekua ere uzten dute, eta Gracia-
nak iratzerik moztu ahal izan zuen ala

ez, ezin izan dugu jakin. Bai, ordea,
pentsatu. Baimena izanda ere, ez luke-
ela erronka errazik emakumeak. Izan
ere, iratze lotea moztu aurretik, aral-
dira, bideak konpontzeko egunera jo-
an beharra zegoen nahitaez. Eta ondo-
ren... ondoren etorriko ziren garoa
mozteko momentuak. Gracianak, sega
eskuan zuela, eguzkipean ebaki eta
ebaki igaro beharreko orduak. Inguru-
koek nola begiratuko zioten ez dakigu,
baina gauza jakina da Hernani ingu-
ruko muino gorrituetan ez zela irudi
arrunta emakumea ikustea iratze ar-
tean.

Izan ere, garai haiek bizi izan zituz-
tenen ahotan, gizona izan ohi zen ira-
tzea mozteko kontuez arduratzen ze-
na. «Gure amak udazkenai ziyon
bildurrik handina. Lanik gehina: baba-
rruna bildu, saarra bildu, iñularra mo-
txa... gizona mendia jun da...», aipa-
tzen zuen utzi berri gaituen Agerre
baserriko (Hernani) Kepa Urreagak. Ez
zen ohikoa emakumea iratzea mozten

IRATZEAK URREA BALIO ZUENEAN

ikustea. Ez behintzat, Hernaniko udal-
lerrian gertatzen zen moduan, sega
bizkarrean hartu eta baserritik hiru
ez bada lau ordura zeuden mendieta-
ra joan behar bazen horretarako. Eta
egunak joan, egunak etorri, egunero
lan bera egin behar bazen.

EMAKUMEA HARRAPAZKA EGUNEAN

Iñistor tokietan emakume gutxi iza-
ten zela aipatzen dute bertan izan zi-
ren testiguen. Hipolito Arregi defun-
tuak, esaterako, hala erantzun zion
gure galderari emakumeak harrapaz-
ka egunean iratze moztera joaten zi-
ren galdetuta: «Ez, nik *enun ikusi. Or-
duko edukaziyuakin... galaziko
ziyoten neskail*».

Hala, Erretereriako testiguen arabera,
emakumeek baserriaz ez ezik, har-
rapazka egunean gizonentzako baz-
karia egiteaz ere arduratu behar
baitzuten. «*Baña eten gabeko kaska-
bar eta euri-jasa artan, etzioteken
neskatxari lanean utzi. Ura sukal-zai
jarri ziteken*», zioen Atañoek ere
“Txantxangorri kantaria” lanean.

Iratze kontuak guztiz gizonezkoen
lana zirela esatea, ordea, okerretik
hastea litzateke. Izan baitira gonak
iratze artean.

EMAKUMEAK IRATZE ARTEAN

Iratze kontuak ez baitira hori ebaki-
tzean amaitzen. Hipolitoen emaztea
zenak, Pepita Arbidek ere «Ez, ez, ez!»,
azkar batekin erantzun zigun garoa
moztera joaten al zen galdetu genio-
nean. Guztiok genekien, baina, Pepi-
tak bazuela sekretu eder bat. Inguru-
ko guztiek ezagutzen zuten, eta
kontatu beharra dagoen istorio eder
bat. Eta hala esan zigun:

«*Ganadua hartu ta (iratze) bila joa-
ten nintzan ni. Atta jekitze zan goiz
ganaduai pentsua ematea eta ikuillu-
ko lana itian jeikitzen zigun. Bosterdi-
tan jeiki eta hemendik harea gana-
duan pausuan. Bea karruan lo eta ni
ganadukin aurrian Latxea (Ereñotzu).
Ni beti ganaduan aurretikan eta bes-*

Udazkenarekin batera kolore
nabarra nagusitu da mendi
magaletan. Berdetik gorri pas
dira iratzeak. Orain da horiek
mozteko garaia. Egun, ordea, gutxi
dira jada ebakitzen dutenak. Garai
batean, ordea... garai batean bai.
Iratzeak urrea balio zuenean,
liskarrak eta guzti izaten ziren hura
mozteko unean.

Garoa, iñistorra edo iratzea. Deitu
nahi diozun bezala. *Pteridium
aquilinum* izeneko landarea oso
preziatua baitzen. «Azpigai hoberik
ez baitago» entzun izan dugu sarri
askotan. Izan ere, iratzea ezinbesteko
lehengaia zen baserri askotan.
Ganaduaren azpitarako erabilitakoa,
ohea egiteko. Eta horrekin, simaurra
egingo zen, gero baratzeke ongarri
moduan erabiliko zena. Ongarri
kimikoen faltan, beraz, iratzea
moztea baino ez zegoen. Hortik, ira

mozteko hilak, irailak, garai batean
izan zuen garrantzia.

Irailean hasten baitzen iratzea
hosto gorritzen, eta «iratzea gorri
moztu behar baita!». Hala, aurretik
lan gutxi bazen baserrian, irailean
denak pilatzen ziren, eta egunaren
orduak estutu.

Herri batzuetan, alabaina,
sesiorako gaia ere bihurtu zen
garioaren mozketa, eta arauak eta
legeak jarri behar izan ziren.
Denentzako adina garo sailik ez, eta
izaten baitziren iratzea moztu eta
besteentzat alerik uzten ez zutenak.
Horregatik, herri batzuetan egun,
ordu eta leku jakin bat jartzen zen
garoa moztan hasteko.

HARRAPAZKA EGUNA


Andoainen, Erreterian, Hernanin,
Oiartzunen eta Urnietan, esaterako,
harrapazka eguna egiten zen. Iratzea

moztan hasteko eguna. Harrapazka
eguna iraileko Ama Birjinaren
egunaren (irailak 8) inguruan egiten
zen urtero, garoa gorritzen hasten
zen garaian. Hernanin, esaterako,
alkateak bandoa ateratzen zuen, eta
egun, ordu eta leku jakinean
gelditzen ziren Hernaniko baserri
bakoitzeko bi edo hiru pertsona
garoa mozteko. Lehen egunean,
igitaia eskuan zutela. Hala,
egunsentiarekin batera, basozainak
tiroa edo suzeria airera botatzen
zuenean hasten zen harrapazka.
Hasten zen, iratzea ahalik eta
azkarren, ahalik eta gehien mozteko
eguna. Gehien moztan zuenak
eramango baitzuen iratze gehiago
baserrira.

Asko dira, beraz, iratzea mozteko
egunei loturiko kontakizunak eta
istorioak. Iratzea baserrira eramatea,
ez baitzen soilik ebakitzea. Gero
etorriko baitziren, gurdia baserritik
mendira eraman, bertan “*jornaa*”
ondo kargatu, eta etxera eramateko
momentuak. Eta behin etxean,
metak egiteko uneak. Eta pauso
guztiak ziren garrantzitsuak. Izan
ere, iratzeak urte osoa iraun behar
zuen.

Izan ziren, baina, harrapazka
egunik ez, eta bakoitzak bere lotea
edo iratzea mozteko eremua zutenak
ere. Udalari zergaren bat ordaindu
eta garoa mozteko euren iñistor
tokia zutenak. Moztera joan aurretik,
ordea, bideak txukundu beharra
zegoen. Horrek ahalbidetuko
baitzuen gero gurdiekin iratze bila
joan ahal izatea. Horretarako, herri
askotan auzolana edo araldia egiten
zen. Hainbat herritan “malobra” ere
deitua. Iratzea moztu aurreko
egunetan, gurdibideak konpontzeko
eguna zen, eta Hernanin, esaterako,
Udala izaten zen araldiaren berri
ematen ziona baserri bakoitzari. Izan
ere, iratzea moztu nahi zuenak,
halabeharrez joan behar zuen
araldira. Ez zen hautazko kontua.

Hernaniko Agerre baserrikoak meta
egiten, 1965. urtean.
Felix UNZUETA | KEPA URREAGAREN SENDIAK
UTZIA



Graciana Mendizabalek bere senarrak eskuratua zuen iratze lotea erabiltzeko baimena eskatu zion Udalari, senarra eroetxean zegoelako. Senarraren faltan, berak iratzea mozteko eskubidea zuela aldarrikatu zuen

tiak atzetikan. Ni ottua neon-da! Ma-kila motzakin mutturrian jo ta zuzen! Aber ze erremeyo! Gaztia nitzan baño, earki ikasiya neon».

Ereñotzuko auzotar batzuek oraindik ere gogoan dute, Pepita sasoiko zegoela «gizonak bezala» aritzen zela garoa kargatzen edota «karrua» maneiatzen. Txikitatik ikasi behar izan baitzuen horiek egiten. Eta bi-hiru ordu egingo zituen gutxienez inistor to-kira iristen, aita atzean lo zegoen bi-tartean. Iratze kontuetan pauso guztiek baitzuten bere garrantzia. Ha-la, ganadua ondo gobernatzea, bidean garorik ez galtzea, edota ahalik eta bi-

Pepita Arbidek iratzea moztu ez, baina gurdia lursailera bertara eramaten zuen, bizpahiru orduko bidean, eta gero karroa kargatu ere bai, Ereñotzuko auzotar batzuek ondo gogoan daukaten bezala

Gizon taldea inistor artean, Urnietan. Indarrak hartzen ari dira lanari aurre egiteko.
Jose Luis UNANUE | MANUEL LARRAMENDI
KULTUR BAZKUNAK UTZIA

daia gutxienean eta azkarrenean karga handiena eramatea garrantzizko kontuak ziren. Baserriko antolaketan eragina izan zezaketenak.

Maria Rita Miranda bezala, iratze kontuak ondo ezagutu dituztenen esanak entzutea nahikoa da ematen zitzaion garrantziaz ohartzeko: «*gur-diya kargatzia artia da*» bezalako esal-

diek erakusten baitute zenbateko mi-moz egiten zen pauso bakoitza.

Hamalau urtez geroztik inistorreta-ra joan zen Maria Ritak ezagutzen baitzuen ondo iraileko betebeharra. «*Emakumiak (garoa mozttera) jutia etzan normala izaten*», aipatzen du, jakinda bera izan zela horietako bat. Izan ere, iratzea mozten aritzen zen Rita, «*segakin eta danian*».

Hargatik, azalpenak emateari utzi, eta iraila delako aitzakian, gaztetan iratzea mozten ibiltzen zen inistor to-kietara joatea erabaki dugu. Zein leku hobeagorik Maria Ritarekin elkartu eta solasaldi eder bat izateko?

